

A Z K O I T I A

Hedadura: 55'4 Kmz

Jaiak:

- Herrikoak: Abuztuaren 15ean, Jasokundearen Ama.
- Aizpurutxo: Abuztuaren 24ean, San Agustín. Herri-festak.

Iraurgi Ibarrean lekuturik, Urola ibaiaren ezker aldean eta Izarraitz mendipean, Azkoitiak Azpeitia du mugari ekialdetik; mendebaldean Plentzi, Elgoibar eta Bergara ditu; hegoaldean, Zumarraga eta Urretxuk mugatzen dute eta ifarretik Mendaroko ibarrak eta Debak ixten dute.

Hiribildua sortu aurretik Iraurgi ibarra izenez ezagutzen zen lur barrutia zegoen. Iruñeko Gotzaigoari zegozkion lurren artean, XII. mende amaieran aipamen egiten zaio ibar honi berari. Iraugin inguruko habitata biltzen zuten bi erlijio-etxe bazirela egiaztatzen da. Denborak aurrera egin ahala, Baldako Andra Mariak Azkoitia sortaraziko zuen eta Soreasuko San Sebastianek berriz Azpeitia. Ingurune berean sortu direlarik, antzeko izena hartuko dute, silaba bakarreko aldea egonaz bien artean. Honek, kokatzen diren ibarrekiko goialdea edo hegoaldea hartzen duten adierazten du.

Azkoitiko herriak bi fundazio izan zituen. 1324ean lehena, Alfonso XI.ak fundazio-agiria eman zionean, hasieran San Martingo basilizaren inguruetan lekutzen zelako Iraurgiko San Martin izena hartu zuen. Bigarren fundazioa berriz handik gutxira gauzatu zen, 1331an, San Martingo biztanleek berek hala eskatuta. Erregeak berak eman zion Baldako Santa Marinako Monastegi inguruetan erosi zituzten lurretan tenpeldarrei zegozkienak— herria eraikitzeko baimena. Hemendik aurrera XV. mende erdialdera arte orduan eskuratzen bait du behin-betiko izendapena— Iraurgiko Miranda izenez ezagutzen da.

Biztanlegoa: 10.470 biztanle


- Aingeru Zaindaria Santuaren basiliza: Martxoaren 1ean. Erromeria.
- San Martin basiliza: Azaroaren 11an. Erromeria.
- Aste Santua: Ostiral Santuko prozesioa da aipagarria.

Puebla-Karta agiriak zirela eta, bertako biztanleek hainbat abantaila zituzten, erretzergea eza, burdinoletako produktuen gainean merkatal-eskubideak izatea, edota Getariatik Arrasaterako bidea—edo alderantzizkoa— egiten zutenentzat Azkoitian zehar igarotzeko derrigortasuna esate baterako.

Mugaide dituen herriei dagokien ez, epea arazoak zirela eta, izan zituen hainbat gorabehera Bergararekin, 1415ean akordio bat lortu zuten arte. Akordio honek bi hiribilduen arteko zederriak mugatu zituen. Gauza berbera gertatu zitaion Azpeitiari, 1458an bere lurraldeak ere mugatzeari ekin ziotelarik. Bertako biztanleek jarraitu zituzten lehen udal ordenantzak Errege-Erregin Katolikoek 1484ean egiaztatu zituzten. Hauek, leinu-talderik ez izatea agintzen dute. Gerora ordenantza berriak egin zituzten 1573 eta 1694ean.

Azkoitia zen gainera, probintziako Korregidorea bere auzi-epaileekin txandaka bildu ohi zuen lau hiribildu nagusietarik bat. Tradizio hau, Basarten Gipuzkoako Anaigoak erdi aroan atari zabalean egin ohi zituen bileretatik dator.

Herriak izandako garapen historikoan badago beste gertakari garrantzitsu bat, zera, 1763an Real Sociedad Bascongada de Amigos de Pais-en sorrera, Insausti Jauregian Xabier Munibe eta Idiakenez, Peñaforda Kontearen ekimenez burutzen ziren bileretan gorpuztu zena.



HIRIGUNE HISTORIKOA



Herriak almendra eitea zuen, bi kale eta harreria inguruan, sarrera-ataurre ugari. Eliza harrésiz kanpo lekutu zen eta Baldaren tokia hartu zuen XVI. mendera arte, orduan barrura aldatu zuten. eta horretarako, hainbat etxe suntsitu behar izan zituzten.

Eliza eta Santa Klararen arteko erdiko espaloia, Plaza berri, gaur egun eraikuntzarik gabea, etxe hilada batek bete zuen garai batean. Alde banatan Izarraitz kalea eta Konpainiakoa lekutzen ziren. Bide obalatua jarraiki plaza ireki txikitari amaitzen ziren, bi sarrera-ataurrerekin bat eginaz.

Etaroko biztanlegunea Errege Bidearen eta inguruko burdinolen inguruan sortutako merkataritza-mugimenduari esker hazi zen. XVI. mendean badira iada herrirako sarrera-errepideen inguruetan tajututako hainbat auzune. Goikokale, La Guardia eta Santa Klara adibidez. Zabaldura etengabea izan da gutxi gora behera historian zehar, nahiz eta atzerakada guneak ere ezagutu dituen, batez ere hondamen-gertakariak eraginda, 1.436, 1.545 eta 1.645ekosuteak esaterako.

Herriak duen erakargarritasunik handieneko monumentu-multzoa Santa Maria la Real Elizak (*6), Etxebeltz etxeak (*7) eta Ildiakaitz Zaharra etxeak osatzen dute.

■ Santa Maria la Real Parroki-Eliza (*6)

Saloi oinplanoa du elizak eta altuera bereko hiru nabe euskal gotikoaren arauak agintzen dutena jarraiki. Sapaia zortzi zutabe ziliindriko handik eusten diote, doriar kapiteldunak guztiak, oinarri-atiko eta zokalo prismatiko gainean. Pilareek 14 metroko goiera hartzen dute. Erdiko nabeko gangak, petxina gaineko kupulek osatzen dituzte eta alboetako gangak berriz, arku beheraztukoak dira.

Argitasuna Epistola aldeko hormalde guztietan, ate nagusia dagoen tokian, leiha-teak jarriaz lortu da.


Elizan egindako lehen lanen agiri-berria 1522koa da; data honetan Fernando Arteaga Jaunarekin egiterapen-kontratua gauzatzen da, Pedro Lizarazu, Pedro Alzaga eta San Juan Arteaga hargin maixuek agindutako burupidea gorputzeko arduradun.

Eliza, Baldako Santa Mariatik herribarrena aldatzeko baimema 1.509an eskuratu zen.

Lan hauek 1586ra arte luzatu ziren, hargin belaunaldi batzu ere igaro zirelarik. Etenaldi eta istripu ugari izan zen bertan, esate



Udaletxea.



Balda dorretxea.

baterako 1578an burualdea bertan behera erori zen.

Urteak aurrera, bestelako atalak berritu nahiz aldatu zitzaizkion, elizgela eta dorrea. Lehenengoa XVII. mendean egindako egitasmoan barne-hartu zen; bigarrena berriz, XVIII. mendean egindako lanetan, aurreko dorreburua 1735ean tximista batek jota erortzearen ondorioz berregitera behartu bait zituzten.

Barne aldean, alboetako kaperen ornamentazioa ezezik aldare nagusiko erretaula, 1660an egina, eta Cavaille Col1 organo erromantikoa ere -etxe honek egin zuen azkenagailentzen dira. 1898an estrainatu zuten.

■ Etxebeltz eta Ildiakaitz etxeak

Etxebeltz etxeari (*7), Ildiakazdarren dorre zaharra, azken karlistarren gerratsak burututako ekintzen ondorenetatik dator kio izena. Jauregiko lorategietan, gaur egun guztien erabilgarri direnak, Barrika-lturria izenez ezagutu ohi den iturri neoklasikoa dago, hiribilduaren ikur bihurtu dena. Etxebeltzen parean Ildiakaitz Zaharra (*11) etxea dago, mudejar erakoa (XVI. mendea). Bi etxeok, Urola ibaian zehar zegoen herrirako sarrera zaintzen zuten.

■ Aizkibel kalea

Aizkibel kaleak, Azkoitira iristen zen bide zahar batek segi ohi zuen arrastoa markatuz Eliza inguratzen du. 1 zbk.an etxe deigarria dugu, ertzeko atezain-gelagatik batez ere, XVI. mendekoa. Defentsarako kutsu hau, antza, toki honetan bertan zegoen harrésiko ataurre batetik datorrela dirudi.

■ Kale Nagusia

Kale Nagusiak Elgoibar, Zumarraga eta Bergararantz zihoan Errege Bidea fosildu du. Bide bazterretan etxeak eraiki ziren auzune bat sortuz, XVIII. mendean herrigunearekin bat egin zuelarik.

Udaletxe zaharra kale Nagusiko 102.ean zegoen. Etxea udal egoitza, berriaren lanei



Santa Maria la Real parroki-eliza.

ekiteko saldu zen. Gaur egun Altzibar Jauregi izenez ezagutzen da. Kale honetan biltzen dira gainera, hiriguneko hainbat eraikuntza garrantzitsu. Olano etxea 70. zbk.an XVI. mendez geroztik jaso da agrietan. Abarda etxea, 74. zbk.an, jauretxea da. Armarría du. 89-91 zbk.etako Txurruka-etxea eta Rekalde 95.ean, antzineko Bizkargi izena egungoaren truke 1528an aldatu zuena, kale honetan aurki ditzakegun beste eraikuntza interesgarri batzuk dira.

■ Plaza Nagusia

1730. urte aldera Udaletxe berria (*5) plaza handi batekin eraiki izanak auzunea hirigunearen esparruan sartzea ekarri zuen. Plazan, Jose Lizardiren egitasmoa jarraiki egindako Udaletxeaz gain, badira bestelako eraikuntza garrantzitsuak ere, Leturiondo etxea (*4) eta frontoia esate baterako. Udaletxeak arkupeturiko aterpea du, eraikuntza hauek izan ohi dituzten tradiziozko balkoiak eta armarría. Arkupea edo bestela esanda kontsejupea, herriari belaunaldiz-belaunaldi ospea eta izen ona eman dioten pelotari-sailen sorleku izan da.

AUZUNEA

■ Goikokale

Herriko esparru honetan jendea lekutzea oso antzinatik dator eta inguruan esistitzen ziren burdinola hidraulikoei lotzen zaie. Burdinarienez auzunea izenez ere ezagutua da eta tradiziozko hainbat eraikuntza lekutzen dira bertan, Zornostariaga oinetxera (*13) doan aldapa jarraiki mailakaturik ageri zaizkigunak. Oinetxe hau Manuel Ignacio Altuna Porturena da, (Azkoitiko Za1duntxo)etarik nagusienetakobat.

San Frantzisko basiliza egiteko (*12), kontzejuak hala erabakita 1724ean eraiki zena, 1321 erreal ordaindu behar izan ziren. Pedro Astigarragak burutu zituen udal-arau-bideak. Basiliza – gurutze-toki txikia da, fatxada klasikoa, harrizko bi zutabe eta aurrekaldean egurrezko frontoia ditu.

Ibaiaz beste aldera, Goikokale parean Jausoroko multzoa lekutzen da. XVI. mendeko oinetxe bat du (*1), izen bereko burdinolaren nagusiak bizi zirelarik bertan, Trinitade Zaharra (*2) etxetoxa, eta hiru zulutako harrizko zubia (*3). Inguru honetako lehen zubia 1527 aldera egin zen.

■ Santa Klara

Auzune honi izena bertan lekutu zen monja frantziskatarren monastegi batetik dator (17-29). Francisco Zuazola, Florea-ga etxeko Jauna (17-40) izan zen 1590ean Santa Klara monjetxea egiteko baldintzak ezarri zituen, horretarako Ubaiar etxeko (17-29) sor0 bat eman zielarik. Gertakari honen aurretik herriko esparru hau beheko auzune izenez ezagutzen zen, XV. mendez geroztik bere berri bazelarik. Garai hartan kontzejuua Iribe dorretxean bildu ohi zen, egungo Urizar jauregian (*9).

Beranduagokoa da San Jose basiliza (*10), Goikokale auzoan dagoen San Frantzisko basilizaren egiteko berbera betetzen duena.

■ Hirigune historikoaren bueltan hainbat testigantza historiko nabarmen biltzen dira, bai ibarraren eremuan, bai inguruetako mendietako aldapa leunetan ere. Iraurgiko San Martin basiliza (17-39) dugu zalantzarik gabe itzalik handienekoa, Azkoitiaren iturburu gogoan izanez gero. Orain gutxi arte etxebizitza batek bete du. Balio estrategiko handia duen mendixka baten lepoan kokaturik, eraikuntzak kanpotik begiratuta ez du bestelako adierazgarri eskaintzen, erloju-dorrea izan ezik. Halaz guztiz ere, esku-idazki zaharretan ematen zaion Beidazar izendapena bat dator Azkoitiari lehen jatorrian bete zituen lurrekin. Gauza berbera esan daiteke Balda dorretxei buruz (*8). Honek egokia-go eutsi die erdi aroko ezaugarriei, Baldako Monastegiarekin batean, bertan lekutzen zen antzinako parrokiak garrantzia handia izan zuelarik. Erromaniko-gotiko erako portada gaur egungo hilerria (17-19) aldatua izan zen, oraindik ere jatorrizko egiteko berbera betetzen duelarik.

Hilerriarekin batean, zertxobait **urrutira**-tuak, **Zumeta (17-22)** eta **Olano (17-21)** L baserriak ditugu, herrialdeko tradiziozko bi baserri.

Floreaga etxea (17-40), XVI. mendeko jauregi mudejar bikaina, izan da **Zuazolatarren** oinetxea, **Malpaso** eta **rorelo** direlakoan aginduak jarraiki eraiki zena. Pedro Zuazola erregearen idazkari izan zenak agindu zuen etxea egitea. Leinu honek Azkoitiko bizitzan izan duen eragina **itzefa** izan da, Santa Klara monjetxearen **sorrera** aipatu dugunean **adie-razi** bezala.

Insausti Jauregia (17-32), Izipiritu **Santuaren** basiliza ondoan, eraikuntza barrokoa da. Francisco Xabier Munibe eta Idiakez, Peñafloidako Konteak etxe honetan du **jatorria**. Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais delakoaren sortzaile izan genuen.

Ugarte multzoak Ugarte Igaran baserria (17-31) eta Ugarte etxea (17-30) **besarkatzen** ditu. Lehena, gorde diren hondakinak ikusita XVI. mendekoa **dela** baiezia daiteke, nahiz eta XIX. mendean, sarrera-giltzarrian dagoen idazkitik ondoren daitekeen legez, berrikuntza-lan garrantzitsuak egin **zitzaizkion**. Ugarte etxea Jesusen Lagundiaren jabetguzakoa izan zen.

Piirgo Amaren basiliza (17-34), XVIII. mendeko Santutxua, eta Mirafloresko **Oinetxea** (17-33), XVI. mendekoa, hirigunetik **gertuko** ibarguneetan lekutzen dira. Miraflores alboan **Haitzetako San Juanen**, zaindaritzapeko basilizatxoa izan zen, **batere** aztarnarik utzi ez duena.

UDALERRIA

Larramendi auzoari San Juango zubi zaharraren alboan (17-37) lekututako baserri batek ematen dio izena. Erdi Arokoa dirudi, **ate-leihoetan** dituen arku zorrotzak ikusita. Multzo txiki honetako osagarri da, baita ere San Ignazioko **gurutzetokia** (17-35), XVIII. mendekoa.

► Santa Krutz

Santa Krutz auzoak Izarraitzko egietan zehar goratzen **hasten** diren eraikuntza-saila biltzen du. Izen bereko basiliza dugu (17-27) multzo honen erreferentziagune. Eraikuntza hau iadanik XV. mendeko agiri-iturrietan azaleratzen zaigu. Egun erakusten duen itxura berriz, XIX. mendean egin ohi ziren eraikuntzen tankerakoa da.

Azpi-azpian Azpeitira doazen errepideen gurutzebide ondoan Santa Brigida basiliza lekutzen da (17-28). 1728 bitartera arte

zelai zabalean egona behar zuen, data honetan hartzen bait da bertarainoko **bidea** egiteko erabakia, udal bide-sarea **egokitze**-ko egitasmo orokorrean barrendua.

► Izarraitz

Izarraitz mendiaeren hego-magalean lekuturik, baserri erako landa eraikuntzek baizik ez dute osatzen. Baserriok ibarraren **gajneko** balkoia hartzen dute, 300 **metrotako altuera** urratzen dutelarik. Haranaga (17-24) eta Irarraga (17-25) baserriak iadanik 1410.eko agiritan aipaturik ageri dira, Gipuzkoan dauden mota honetako eraikuntzarik zaharrenetarikoen artean lekutu ditzakegularik.

Aginagak (17-13), Pikoagak (17-23), Argarain Azpikoak (17-14), eta Urkiologikere (17-9), hau arku zorrotzekoa, eskaintzen dituzte arkitektur-elementu interesgarriak.

► Zuazola Mendi

Auzo hau ere Izarraitz mendi-hegietan zabaltzen da, mendebaldera **begira** dagoen eremuan lekutuaz, Elgoibarrera doan **errepideak** zeharkatzen duen ibarrarekin bat **egiten** duelarik.

Auzo honetako eraikuntzen artean hainbat etxe gailentzen dira: Iraola-torre (17-8), izenak adierazten duen modura erdi aroko dorretxea izan zitekeena, Zuazola-torre (17-10) bezalaxe, baita Olazabal (17-12), **Aizpuru** (17-11) eta Mokoroaga **Aundi** (16-60) baserriak ere.

► Egurbideko multzoa

Zuazola Mendi auzoaren azpian, Elgoibarrera dihoan errepidearen bihurtune batean Egurbide jauregia (17-16), Aingeru Zaindariaeren basiliza (17-17) eta oinetxe honen zutabe ekonomikoa izan zen burdinolaren hondarrak (17-18) lekutzen dira. Ongi **zaindurik** gorde den multzo hau, lurralde honetan hain ugariak izan ziren landako oinetxeen eredu da. **Baseliza** familia-hiletxea da, Azkoitiko Santa Maria la Real elizatik **ekarritako** gangetako giltzarriak gordetzen dituelarik. Irudizko motiboek edertzen dituzte eta XVI. mendekoak dira.

► Martirieta

San Emeterio eta Zeledonio martiriei emaniko basiliza (23-3), auzoari nortasuna eman dion sinboloa da eta gainera, Oleta mendirako igarobide menditsua markatzen du, Urolako goi erretenera eta Oriako **ibarre**-ra igaro-toki dena.



Insausti jauregia.



Jausoro etxea.



Urrategi auzoa, Andra Mari basiliza atzean duela.

Mendiko beste hainbat auzo bezalaxe, biztanlegunea lurganadutzatik bizi diren baserrietara mugatzen da.

Hirigunetik gertuen dagoen baserria Umansoro (17-45) dugu, erdiarokoa da nahiz eta XVII. mendean berri zuten. Bidean aurrera eginda, Lapazaran baserri ondolik igarotzen da (23-I), fatxadaren eraikuntzaren egitura osatzen duten egurrezko pilare zutak hiladan nabarmentzen zaizkiolarik. Baseliza ondoan, 400en bat metrotako altueran Zendoia baserria (23-2) lekutzen da.

► Kukuerri eta Agineta

Martirietako gune, menditsua hainbanatzen dutela, bi auzo azkoitiar ditugu; Kukuerri dugu bat, Azkoitiko hirigunetik abantatuaz bertaratzen da eta Agineta bestea, Urola ibaiari gaina hartuaz Zumarragara doan errepidetik sarrera duena. Lehenengoan, Larrunbe Txiki baserria (23-4) eta bigarrenetan San Martin Eliza (23-5) dira elementurik aipagarrienak.

► Urrategi

Kukutzeta mendipean lekututako gune menditsua dugu Urrategi, Elgoibar eta Bergararik gertuan dauden lurretan, eta honen bestez, mendi-komunikabideetan toki estrategikoa hartuaz. Urrategiko Amaren basiliza (16-62) da gune honetako eraikuntzarik adierazgarriena. Oinplano angeluzuzeneko eraikuntza da, ate gainean dagoen idazkiaren arabera 1617an eginikoa. Eliza Azkoitiarekin lotzen den errepideburuan lekutzen da. Inguru honetan aurki ditzakegu baserri ederrenak, hala-nola, Zabala (17-43) XVI. mendeko oinetxea, Egino Zahar (17-47), Oianguren goikoa (16-61), Uitta Goena (16-54) eta Ormola (16-63).

Isasaga dorrea (17-46) ertaroko eraikuntza ederra da, eta Urrategirako eta errepide zahar honetako gune garrantzitsuetarako sarrera begiratzen duela dirudi. San Antonio basiliza (17-44) testuinguru berean koka daiteke. Urolako errepide bazterrean dagoen gurutze-toki edo Santutxua da.

Ezin ahantz dezakegu, hementxe hasten dela Elosuan zehar Bergararako errepidea, gaur egun erabilera mugatua badu ere, garai batean errepide garrantzitsua izan zena. Zabaleta (22-59) eta Goenaga (22-60) baserriek batetik eta Ipintzak (17-48) bestetik, beren aztarna interesgarriekin bide zahar hauen joana adierazten digute, lurraldearen ertaroko iraganari uztartuak.

► Madariaga edo Madarixa

Orain arte levo hauetara ekarri ditugun Azkoitiko auzoen baserriak emana nagusi du honek ere. Deba eta Urolako ibarren artean ibilgailuentzako komunikabidean berezko mendatea hartzen du, eta aldi berean Izarraitzera eta kostarako -1asturren zehar-derrigorrezko igarobidea da. Baseliza San Isidroren zaindaritzapean (16-59) egina dago, eremu honek duen landarako emaren adierazgarri. Baditu hainbat baserri interesgarri, hala nola, Aldazabal (16-58) XVII. mendez geroztik dokumentaturik dagoen oinetxea, eta Ondarroa (17-1).

Laskurrerantz doan aipaturiko bideak Marikutz zeharkatzen du, bidaztiak oso maiz bertaratzen diren tokia. Gune honetan berezko aintzira baten aztarain eusten zaie. oihar-tzuan historiko itzelekoa bera, inguruan bi historiaurreko tumulu lekutzev bait dira, Mari-kutz I (17-2) eta II (17-3).

► Aizpurutxo

Urolako haranari gaina hartzen diola, Zumarraga eta Urretxurantz doan errepide inguruan biltzen da Aizpurutxo. Eskaintzen dizkigun testigantzak berriki eraikitakoak dira gehienak, ibaian zehar azaltzen diren gune hidroelektrikoak izanik aipagarrienak. Aspal-diko errota hidrauliko eta burdinolen ondorenak dira.

San Agustin eliza (22-63) mende hasierakoa da, inguruari darion berri-usaina indartuaz; modernotasun honen riko bat trenbide eta errepide bidezko garraioa izan da.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiak 1992. urtean argitaratutako
GIPUZKOAKO GIDALIBURU HISTORIKO MONUMENTALA

